

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LEHENDAKARITZA

## 4714

*EBAZPENA, 2015eko uztailaren 16koa, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Virtualware 2007, S.A. erakundeari emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren izaera aitortzeko dena.*

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren bidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren aitortza arautu zen, emakumeen eta gizonen berdintasuna ahalbidetzen duten baldintzak sustatzeko, bai eta berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzea ahalbidetzen dutenak ere; horretarako, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunaren alde gizaritean eta lan-eremuan sor daitezkeen ekimenak bultzatu, eta eremu horretan erakundeek egin duten lana aitortu beharra dago.

Dekretu horren itzalpean, Virtualware 2007, S.A. erakundearen ordezkari Unai Extremo Baigorri jaunak aurkeztutako eskabidea ikusita eta erakunde horrek emakumeen eta gizonen berdintasun politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-agiriak balioetsi ondoren, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Virtualware 2007, S.A. erakundeari Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren izaera aitortzea, 11/2014 Dekretuan ezarritako zehaztapen eta baldintzen arabera, eta erakunde horrek emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-agiriak oinarri hartuta (11/2014 Dekretua, otsailaren 11koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren aitortzea arautzen duena).

Bigarrena.– Aitorpena indarrean dagoen artean, 11/2014 Dekretuaren 12., 13. eta 14. artikuluekin bat etorritik, Virtualware 2007, S.A. erakundearen aitortzen horretaz baliabide egokitzat jotzen duen irudizko korporazio-osagai orotan.

### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 16a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.